

KAIXO!—Edonorri, edonon eta edonoiz «Kaixo!»-rekin agurtzen hasi zaigu gure giputz jendea. Egunon, arratsaldeon, gabon, agur, ongi-etorri..., edo antzerakoen ordezkoa betetze ustean.

Guk ezagutu genuen «Kaixo!», ez zen hori. Gure ustez «*qué hay*»-tik edo zetorren hitz horrek erdarazko «*¡hola!*»-ren balio soila zuen, eta adiskide artean edo konfiantza handiko ezagunen artean baizik ez zen erabiltzen. Edukazioz gabea eta errespetu faltakoa zen edonor, edonon, edonoiz «Kaixo!»-rekin agurtzea. Horrelakorik gertatzen zenean ordea, hitzetik hortzerako erantzuna prest edukitzen genuen:

—Kaixo!

—Ez dogu asko balixo.

Baina, orain, Euskal Telebistaraino ere iritsi zaigu agurtzeko era hori. Beraz, zer da devaluatu dena, euskara ala telebista? Ala, ez ote dugu balixo.